

SECCION AMENA.

OSABA PILLOTAN.

Plazan entero itsusi
degu osaba ikusi,
zartuta, blekan
mutill guztien
kontra jokatzten da asi,
eta ez du irabasi.

Zartu da ta edadia,
joan zayo lengo aidia,
berak ez du nai
aitu, zayonik
galdu ebillidadia,
jau da debillidadia!

Aisa asko diyo garbitu,
Bekirik ez du argitu,
ogeita laura
amaika tanto
bakarrak atera ditu,
lotsagarri da arkitu.

Bote mocha bazan artzen
gisarajua zan lertzen,
luzia egin
ezkoroz berriz,
kolkora zitzayon sartzen
ongi etz zalako jartzen.

Nekaturikan guziya
zutik ezin zeguen iya,
partidu orrek
laburtu diyo
amar urteko biziya,
damutu zayo asiya.

Lorikan ezin egindu,
Ezur guztiyetan mindu,
eztula eta
katarro zarra
ditu beregana bildu,
gorputz, zar gaisoa ildu.

RAMON ARTOLA-k *ipiniak* Donostiyan 1869.^{garren} urtean.



I.ko MUTADI EDO ISITZAREN ASKANTZA:

Bayonako Choribi apaizari eskumunak.*

(*) Izen onetako apez nagusi edo kanonigo jaun bat da Bayonan.